

Luis Fernando Urkiola: «Udalekin elkarlanean aritzea ezinbestekoa da»

'Behingoz' programaren bidez, gazteek euren herrian lan egiteko aukera izango dute

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu eta Trebakuntza Sailak sortu zuen Dema 1988an, Bizkaiko gazteak lan merkatuan sartzeko asmoarekin. Egoera benetan larria da Bizkaiko hainbat tokitan. Ezker-aldea, Bilbo eta Getxo dira horren adibideetako batzuk. Gazteak lan munduan sartzeko hartutako neurrien artean, langabezia tasarik altuenak dituzten herrietako udalekin elkarlanean aritzea erabaki zuten Dema eta Bizkaiko Foru Aldundiak.

Lehenengo urtean, Alonso-tegi, Basauri, Erandio eta Galdakao izan dira *Behingoz* programan parte hartu duten herriak. Luis Fernando Urkiola Demako gerenteak adierazi digunaren arabera, emaitza oso onak ematen ari da. Hain zuzen, langabezia tasarik handiena duten udalerrietan eragin zuzena duelako: «Eragile guztiak parte hartzen dute egitasmo honetan. Udalarekin batera, langabezia egoera benetan pairatzen dutenak buru-belarri ari dira, langabeak alegia».

Honek udalerri bakoitzak bizi duen egoeraren ikuspegi objektiboa ematen dio Demari. Horrek etorkizunean martxan jarri beharko lirakekeen neurrien plangintza lantzea ahalbidetzen du. «Helburua udalerri horietan langabezia tasa jaistea bada, ezinbestekoa da udalekin batera lanean aritzea. Horiek baitira herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak», adierazi du Demako gerenteak.

Behingoz egitasmoa 18 eta 35 urte bitarteko bizkaitarrei zuzenduta dago. Askok ez dute lan egiteko aukerarik izan orain arte. Honi esker, denbora luzez ikasi ondoren jasotako ezagutza guztiak praktikan jarri ahal izango dituzte. Izan ere, lan munduan sartzeko zailtasunak topatzen dituzte gehienetan gazte hauek. Udalerrri bakoitzean bertako enpresek behar dituzten lanbideak zeintzuk diren aztertzen du Demak; gazte horiek ahalik eta eperik laburrenean lanean hasteko. Honen bidez, gazte hauen trebakuntza ere lanpostu horietara bidera



INIGO AZKONA

Luis Fernando Urkiola, Demako gerentea, enpresako langileekin.

daiteke. «Ez dugu inor engainatu nahi. Horretan trebatzen badira haien herrian bertan lanpostu bat izango dutela esaten diegu gazteei.

Bestela, kanpora joan beharko dute», esaten du Luis Fernando Urkiolak.

Bizkaiko gazteei lanerako bideak jartzeaz gain, autoenplegua sustatzea da Demako egitarauen beste helburu bat. Hauek lan munduan sartzean dituzten arazoez arduratuta, mikroenpresak sortzea bultzatu du Demak, gazteek euren kontura lan egin dezaten. Horretarako, enpresak sortzen laguntzeko programak kudeatu ditu azkeneko 13 urteetan.

Hauek aurkeztzen dituzten ideiak enpresa-egitasmo bihurtzen ditu, ondoren abian jarri

DEIALDI IRAUNKORRA

Enpresa-egitasmo bat gauzatu nahi duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteek urte osoa izango dute euren proiektua aurkezteko

eta, hasierako hila-beteak lanean eman eta gero, enpresa merkatuan sendotzeko. *Eskutik* programak, berriaz, Bizkaian eratzten diren enpresa txikiei aholkularitza eskaintzen die lehen hila-beteetan, hurrengo urteetako jardura sendotzeko.


Baina udalekin lan egiteaz batera, ideiak aurkezteko deialdi iraunkorra beharrezkoa dela konturatu dira. «Jendeari ezin zaio eperik jarri ideiak sortzeko. Gainera, inguruko jendearekin egin nahi izaten dute proiektua», dio Demako gerenteak. Hemendik aurrera, enpresa-egitasmo bat gauzatu nahi duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteek urte osoa izango dute ideia aurkeztu ahal izateko.

Informazioa herriz herri

Aurreko urteetan, Barakaldo Elkartegian duten erakusgelan egon dira Demako egitasmo guztiak. Baina aurtun, autobus bat informatikako teknologia berrienekin prestatu eta herriz herriz ibiliko da Bizkaia osoan.

Honen bidez, erakusgelara joateak sortzen zituen eragozpenak saihestu nahi izan dituzte Demako arduradunek. «Lehen, eskoletako ikasleak edo Barakaldo Elkartegira biltzen zirenak besterik ez ziren etortzen. Honen bidez, kaleko jendea jakinaren gainean egongo da», adierazten du Luis Fernando Urkiolak.

Gainera, Demak egiten duen lana egiaztatu ahal izango dute batek edo bestek: «Orain arte hitzak besterik ez ziren. Baina, auto-



busaren bitartez, Demak sortzen lagundu dituen enpresa-egitasmoen helbidea eta telefonoa ikusteko moduan egongo dira».

Autobusak 21 eguneko bidaia besterik ez du egingo Bizkaian, «diru kontuagatik» alegia. Dena den, hurrengo urtean egun gehiagotan luzatzea espero dute, aurrekontu berriak eduki-tzean.